



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2007-12-14

V. URTEA 1.313. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Bi eskualdeetan egin zituzten geldialdiak: goran, Tolosakoa eta behean Leitzakoa bat. E.E./N.G.

LAB: «Kaleetan ikusi dena da gure herriak askatasun gosea duela»

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Sindikatuaren datuen arabera «2.100 lagunek hartu zuten parte mobilizazioetan Goierrin eta Tolosaldean» 3

Ostatuan lapurreta egin dute leihotik sartuta

ORENDAIN Kutzako dirua eta tabakoa eraman dute; urtebetean sartzen diren bigarren aldia da 4

JABIER MUGURUZA MUSIKARIA

«Bizitza eta lanaren arteko koherentzia dut helburu»

VILLABONA 'Konplizeak' diskoa gaur aurkeztuko du Gurean; «oso gustura» dago azken lanarekin 6

IRATI BARANDIARAN IKASLEA

«Saharan denboraren beste kontzeptu bat dute, lasaiago bizi dira»

LEITZA Leitzako beste lau neska-mutilekin batera Saharan izan da, hango familia bisitatzen 7

txokoa
h

2 sarrera pare

Ken 7

Irabazleak:

- Iratxe Bidaola (Villabona)
- Geno Otamendi (Alegia)



abenduak 14 ostirala
22:00etan
Tolosako Leidorren

2 sarrera pare

Black Heritage Singers

Irabazleak:

- Maritxu Bernabe (Txarama)
- Ana Lopetegi (Tolosa)



abenduak 15
larunbata ◦ 21:00etan
Tolosako Leidorren

Laburrak**Eguberrietako kanpainarekin Hirukidena**

ELKARTASUNA ● Hirukidena Eguberri kanpainarekin hasiak dira. Hala, bihar, 10:00etatik 13:00etara baxilergoko ikasleak Maxi Eroskin egongo dira erosketekin supermerkatutik irteten direnei euren kanpainaren berri ematen eta parte hartzeko gonbita eginez. Caritassen eta Abegin utziko dute kanpainazehar biltzen dutena.

Udaberriren lokal berriaren inaugurazioa, bihar

KULTURA ● Udaberri dantza taldearen lokal berriaren (Kondeko Aldapan) inaugurazioa izango da bihar, 19:00etan. Urteurreneko bideoa eskainiko dute eta lancha ere egongo da.

Itzi Sanzen film laburra asteartean ikusgai

KULTURA ● Datorren asteartean, Tolosako EPAn Itzi Sanzen film laburra aurkeztuko dute. 18:00etan izango da saioa.

Lizardi elkarteak kantuan, bihar, 19:30ean

KULTURA ● Aurtengo maiatzean hasitako ekimenari jarraipena emanez, Lizardi Kultur Elkarteak «gure kantu tradizioaren perlarik politenak» Tolosako kaleetan abestuko dituzte Udaberri Dantzari Taldeko txistulariek lagunduta. «Kalea eta kantua aspaldi honetan urrutitua sartuta dagoen bikotea dugu, eta horregatik, ohitura hori ere berreskuratu nahiko genuke lizarditarrok». Horretarako, bihar, 19:30ean Berdura plazan egin dute hitzordua, eta animatzen den oro gonbidatzen dute.

Usabal kirolegiko beharrak aztertzeak taldea

KIROLA ● Tolosako Udaleko kirol batzordeak Usabal Kirolegiko abonatu lan taldea sortzea du helburu, eguneko martxa aztertzeak, erabiltzen keak kontrolatzeko eta hobekuntzak proposatzeko. Udaletik emakumeen parte-hartzea garrantzitsua dela azaldu dute, euren beharrak jakite aldera. Interesatuak 943 697455 zenbakira dei dezakete.

Zesta punta jaialdia, bihar, Beotibarren, 16:00etan

KIROLA ● Bihar, 16:00etatik aurrera Beotibar pilotalekuan Udazkeneko Topaketak izango dira Tolosako Beotibar Zesta-Punta elkarteak antolatuta. Udazkenean aritu dira zesta-puntista gaztetxoanek jaialdiak egiten eta Tolosako izango da azken saioa. Bestalde, gaur, Uzturpe pilotalekuan, 19:00etan ondorengo partidak izango dira: Beotibar 1-Beotibar 2; Beotibar-Zumaia; Baotibar 1-Donostia.

«Desberdinarekin elkarbizi zurea ahaztu gabe, hori da integrazioa»**ABDELAZIZ ALLAOUZI** › Ebn batuta elkarteak kidea

Gizartea › Ereitek antolatuta, gaur hitzaldia emango du Abdelaziz Allaouzi marokoarrak, elkartearen egoitzan

IÑIGO TERRADILLOS

Ereitek Etorikinen Eguna ospatzeko antolatuta dituen jardunaldien baitan, gaur, 18:30ean, elkartearen egoitzan (San Esteban, 20) *Itsasarte bat, eta bizikidetasunera kondematuriko bi ertz* hitzaldia eskainiko du Abdelaziz Allaouzi. Madrilen bizi da duela zazpi urtetik, Gurutze Gorrian egiten du lan, eta Ebn batuta elkarteak kidea da.

Zer da gaurko hitzaldian azalduko duzuna?

Espainiako marokoar immigrazioari buruz hitz egingo dut. Gizarte arloa, enplegua, administrazioa, kultura identitateen arteko talkak... gai horien inguruan ariko naiz.

Nolako da marokoar immigrazioa?

Gehien bat gizonenak dira etortzen direnak. Ondoren, familia be-



HITZA

rriz elkartzea etortzen da normalean, hau da, behin lehenago etorri den gizonenak horrek lanbidea eta etxea duenean, bere seme-alabak eta emaztea ekar ditzake. Hor datorren arazoa da, emakume asko nekazal girokoak etortzen direla, aislatuta sentitzen direla behin hemendakaudenean, eta lan egiteko baimenik ez dutela izaten. Agian horretan arazoa gurea izan daiteke, emakume askok etxean nahi izaten dutelako lanean.

Zein izan da zure esperientzia?

7 urte daramatzat nik Madrilen bizi zuten. Nire ustez, desberdinarekin elkarbizitzea zure nortasuna ahaztu gabe, hori da integrazioa. Hartu zaituen gizarte horri zure jatorrizko kulturak duena eskaini behar diozu, eta era berean, zuk bertako kulturatik ikasi behar duzu. Baina, hori bai, beti mantendu behar ditugu gure jatorrizko kulturaren loturak. Baita ere, uste dut garrantzitsua dela, zure jatorrizko lurraldean gauzak hobetze aldera lan egitea, Marokon giza eskubideen alde, esaterako.

Zein da Marokoko gaur egungo egoera?

Formetan bada hobekuntzarik, baina konstituzioari dagokionez, ez. Botere guztiak erregeak du, eta Gobernuak eduki beharko luke gehiago. Dena den, Hassan II.aren garaitik gauzak hobetu dira. e d

Zuen elkartearen zein da egiten duzuen eguneroko lana?

Tailerrak antolatzen ditugu, sentsibilizazioa lantzen dugu, legeei buruz informatzen dugu, aholkuak ematen ditugu, enplegua bilatzen lagundu...

Ama Lurra eta ohitura txarrak**» Kale kantoitik****Joxemi Saizar**

Basterretxea eta Larrukerten *Ama Lurra* izeneko filma gogora ekarri dute aurten Durangoko Azokan. Eta Tolosako Zineklubak zubi honetan oparitu digun Zine Festa apartan *Lurra* izenaren ikusteko aukera izan genuen film ederretako batek. Landua, interesgarria, ikusgarria eta jar daitzekin adjektibo onguztiak jariezazkiozue, merezi du eta.

Gure lurraen ohitura eta kirol batzuk ikusteko parada ere izan dugu Txuleta Festaren inguruan. Dena ez da jatea izan. Aizkolariak eta harri-jasotzaileak gero eta gutxiagotzen ikusten ditugu gure kale eta plazetan. Argazki eta bideo kamara batzuk dantzan aritu ziren igandean Trianguloan kanpotarren eskuetan. Gauza bera gertatu zen lera arrastaka eta gainean haurrak zeramatzan idisko pareekin. Garai batean kalean galerazita zegoela gogorazti zidan aitak, mendi bideetan bakarrik erabil zitezkeela. Nola aldatzen diren gauzak, kamarada!

Gure lur txiki (herri) honen beste ohiturak Immakulada eguneko meza-kontzertua eta txistularien emanaldia dira. Hemen gelditzen naizenean behintzat, hutsik ez egiten saiatzen naiz, hauek merezi dute eta.

Lur honetara kanpotik bizitzera etorri direnek, aipatutako ohitura on hauekin batera, ohitura txarrak ere ikasten ari direla konturatu naiz aste honetan. Nazioarteko Etorikinen Eguna dela eta, Irazki kulturarteko elkartearen zatiketa-aren ondorioz sortu ziren bi elkarteek bere ekitaldi egitaraua prestatu eta aurkeztu dute. Biek egun berean eta kasu askotan ordu beretan. Gutxi, zatituta eta elkarren aurka, euskaldunok bezala. Gora integrazioa!

@ Eztabaida. Sartu eskualdeko egunkariaren web orrian, eta eman iritzia proposatzen dizkizugun gaien inguruan. *Eztabidak* atalean sartu beharko duzu: «Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna igaro berri da: sentsibilizazio kanpainak gero eta anitzagoak diren arren, egunero komunikabideetan genero indarkeriarekin loturiko erasoen berri irakur dezakegu. Non dago zure ustez honen guztia-aren arazoa?».

www.tolosaldeko-hitza.info**«Aldundiak ez du bete etorkin adingabeekin duen ardura»****PELLO AIERBE** › Mugak-eko kidea

Gizartea › Jatorkin elkarteak antolatuta, gaur hitzaldia emango du Pello Aierbek, 19:30ean TEEK duen egoitzan

I. TERRADILLOS

Jatorkin elkarteak antolatuta dituen Euskal Herriko Herritar Berriak jardunaldien baitan, gaur hitzaldia izango da etorkin gaztetxoaren irudia komunikabideetan gaiari buruz. Hitzaldia 19:30ean izango da Tolosako Ekinbide Etxeak (CIT) duen egoitzan, eta Pello Aierbe (Mugak) eta Lola Fernandez (Granadako Euroarabe fundazioa) ariko dira. Pello Aierbe (Donostia, 1950) azalduko du komunikabideetan etorkin adingabeekin zabaltzen den irudia.

Zer da gehien irakur daitekeena komunikabideetan gai honen inguruan?

Azterketa bat egin eta gero, azken urte eta erdian irudia aldatu egin dela esan behar da, izan ere, egun zabaltzen den irudia da rabat kon-



I.T.

fliktiboak direla. Lehen, berriz, arazo bezalazabaltzen ziren normalean, baina orain, arazotik konfliktora pasa gara.

Aldaketa hori zergatik eman da?

Logikoa da, azken urteetan gehikuntza bat eman baita immigrazioan. Baina, kontua da, hemen Foru Aldundiaren babesean daudela gaztetxo hauek, eta Aldundiak ez baditu gauzak ondo egiten gertatzen direnak gertatzen dira.

Eta ondorioz, adingabeak dira kaltea jasaten dutenak.

Ze ondorio dakar honetik?

Etorkin adingabeak konfliktibo bezala hartzen dira, eta ondorioz, marokoar guztiak, gazte nahiz heldu. Beraz, oso garrantzitsua da Aldundiari eskatzea bere lana ondo egin dezan.

Zer jorrazten duzue Mugak-en?

Sos Arrazakeriaren baitan dugu Mugak. Sare bat eraiki dugu etorkin adingabeen inguruan euren egoera aztertzeak, eta jakiteko zein eskakizun dituzten; hezitzaileak eta elkarteak kidea ari dira ikerketa burutze, eta laster kalera-tuko dugu txostena.

Komunikabideetan zabaltzen den irudia ere aztertzen duzue.

Egunkarietan etorkinei buruz datozten gaiak aztertu egiten ditugu. Noizean behin ere mintegiak antolatzen ditugu. Aurten, esaterako, Donostia mailan ikerketa egin dugu bertako komunikabideen inguruan, eta txostena ere prestatu dugu. Ondorengo asmoa da kazetariek biltzea-edo, irizpide komun batzuk bultzatzeko.

Politika » Gure bi eskualdeetan, eta Goierriin, orotara, 2.100 lagun inguruk hartu zuten parte atzoko mobilizazioetan

«Gure herriak askatasun gosea duela ikusi da kaleetan», LABen ustez

ESTI EZEIZA

LAB sindikatuak luzatutako datuen arabera, Goierriin eta Tolosaldean, orotara, 2.000 langile inguru mobilizatu ziren atzo. Bestalde, Leitzan eguerdian egindako elkarretarazteetan 100 lagunek hartu zuten parte. Manifestazio nahiz elkarretarazteetan parte hartu zutenek, «Euskal Herriaren eskubideen alde, egitasmo politiko guztiei aukera demokratikoa ematea» eskatu zuten. Bide batez, «azken boladan Euskal Herria ematen ari diren erasoak gaitzetsiz». Horien artean, 18/98 auziaren baitan egindako atxiloketak.

Atzokoan, dei berezia egin zieten merkatariei eta ostalariei, beraien komertzioak ixteko. Oro har, saltoki gehienak itxi zituzten eskualdeko herrietan. Bestalde, mobilizazio gehienak arazorik gabe gauzatu baziren ere. Leitzako plazan egiteko deituta zegoen elkarretaraztea legez kanpo utzi zutenez, 20 lagun baino gutxiagoko taldeetan banatu behar izan zuten bertaratu zirenek, kontzentrazioa aurrera eraman ahal izateko. Hala, bost taldetan banatu ziren denak, eta herriko txoko ezberdinetan egin zituzten mobilizazioak. Bitartehorretan, Guardia Zibilen furgonetak alboan zituzten, egoera kontrolatzeko.

Mobilizazioen balorazioa

Atzoko mobilizazioen ondoren, LAB sindikatuak kalera ateratu ziren milaka eta milaka langile, merkataria, irakasle eta ikasteak zoriondu nahi izan zituzten. Beraien esanetan, atzo «Euskal Herriko kaleetan argi eta garbi esan genion Madrili, Parisi eta hauen txotxongiloak diren Gasteiz eta Iruñeako gobernuari, gure herriak ez dituela onartzen 18/98 bezalako epaiketa fartsak». Gaineratu zuten ere, «gure herriak askatasun gosea» duela eta



Anoeta, Tolosa, Villabona, Lizartza, Leitzua eta Apatta-Erreka industrialgunean atzo eguerdian egindako mobilizazioetako irudiak. HITZA

«ez dugula nahi errepresio eta zigorra».

Mobilizazioetan parte hartu ez dutenak nortzuk izan ziren ere nabarmendu nahi izan zuten LAB-

ekoek. Hala, azaldu dute, «batzuk urteak daramatzate esaten, prozesu soberanistaren aldeko borrokan dihardutela». Non «horrelako erasobasati baten aurrean (eta eto-

rriko direnak) atzera egiten dute, gezur merkeak erabiliaz». Honen aurrean, mezu garbi bat helarazi nahi diete horiei, «gure herriak behar duena da, hitz gutxiago eta

ekintza gehiago». Sindikatu abertzalearen ustetan, «PSOE eta EAJ duela 30 urte bezala, Euskal Herriaren aurkako iruzur eta traizioa prestatzen ari dira».



TLHI ere Agenda 21ekin lanean

TOLOSA » Eskolako Agenda 21, ikastetxe eta inguruaren iraunkortasunaren eta kalitatearen alde hezkuntza komunitateak, Udalarekin batera aurrera eramaten duen konpromezua eta ekintza plana hitzartu zituzten atzo Tolosako Lanbide Heziketa Zentruak eta Udalak. Ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste, Jokin Bildarratz alkateak eta institutuko zuzendari den Jesus Agirrek. Bestalde, datorren urteko ekintza plana zehaztu zuten. EZEIZA

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Artzai txakurra galdu da Hernialden. Kolore marroi argi eta beltzekoa. Tolosara joan zela uste da. Interesatuak deitu 943 65 35 26ra.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** 90 metro²-ko etxebizitza salgai Lazkaon. Deitu 689 99 76 74ra.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klara). 2 logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak. Hormigoizkoa. Interesatuak deitu 665 70 86 35ra.

Leihotik sartuta lapurreta egin dute Orendaingo ostatuan

Gizartea » Kutzako dirua eta tabakoa eraman zuten leihoko barra bat moztu ondoren; urtebetean bi aldiz sartu dira.

NEREA URBIZU

Herenegun gauean Orendaingo ostatuan lapurreta egin zuten bertako leihoko barra bat moztu ondoren. Kutzan zegoen dirua eta tabakoa eraman zuten. Atea ere bortxatzen saiatu ziren, baina duela urtebete egindako lapurretaren ondorioz, bertako langileek atea aldatu zuten eta hobe jarri zuten.

Leihoko bateko burnizko barrote zahar eta sendo bat moztu zuten eta horrela lortu zuten ostatura sartzea. Behin barrotea moztuta egurrezko leihoko bat ireki behar izan zuten, «indar handirik egin behar izan gabe, leihoko hauek zaharrak baitira», bertako langileek esan bezala.

Udaletxean dago ostatura, eta goian haurtzaindegia dago; bertara zihoan emakume batek ikusi zuen barra moztuta zegoela eta leihoko irekita. Ondorioz, Ertzaintzara deitu du, eta langileei gero. «10:30ean irekitzen dugu taberna, eta ordurako Ertzaintzak bazekien. Hemen egon dira probak egiten eta aztarnaren bat bilatzen. Antza, eskularruak jantzita zituzten lapurreta egiteko garaiak: hauek badakite lapurretan ibiltzen».

Bigarren lapurreta urtebetean

Duela urtebete telebista batean eraman zuten lapurreta egin zuten Orendaingo ostaturik, eta galera, beraz, handiagoa izan zen. Duela 20 bat egun Alegia inguruan ibili ziren lapurreta egiten eta «esperoan geunden, egun batean edo bestean etorriko zirela bagenekien, baina hala ere, ezin da ezer egin. Bestetik, Ertzaintza ibiltzen da patruillak egiten, baina horrenbeste herri izanda, denetaz ezin di-



Barra bat moztuz sartu ziren ostatura. Barrak oso zaharrak dira, sendoak n.u.

rela egon esan dute». Tolosako Ertzaintzan jarri zuten salaketa. Ostatura udaletxearena da, eta beraie dagokie barra aldatzea, edo leihoko berria jartzea.

Alegian ere bai

Alegiko beste taberna batzuetan ere lapurreta egin zuten duela 20 bat egun. Lehenengo Kafe tabernan, eta ondoren, jubilatuen tabernan. Lehenengotik dirua eraman

zuten eta telefono kabina txikia, bere horretan.

Jubilatuak tabernan leihotik sartu ziren ere eta makina txanponjalea txikitu zuten dirua ateratzeko. «Alarma hotsa atera zuen baina ordurako joanak ziren lapurreta», gogoratu du Patxi Renobalesek. «Kafen egon ziren hiru egun lehenago eta horregatik dirua eguneroko etxera eraman dugu». Tolosan ere, komertzioetan dabilta.

L Laburrak

Gabon kantetako entsegu bakarra bihar egingo dute

BALIARRAIN » Bihar 21:00etan Gabonetan, hilaren 24ean kantatuko diren abestien entseguak izango dira Baliarraingo kultur gelan. Hau izango da egingo duten entsegu bakarra. Bertan hilaren 24ko eguneroko zehaztapenak emango dituzte.

Arrasateko manifestaziora joateko autobusa

TOLOSA » Bihar Arrasaten 17:00etan AHTren kontrako manifestazioa egingo dute, eta autobusez joan nahi duenak aukera du gaur arte izena emateko, honako tabernetan: Tolosan (Raku, Txiki, Eguzki, Meskal eta Denak), Anoetan (Itzulini), Villabonan (Iratzar), Zizurkilen (Aurreran) eta Adunan (Iratzarren). Antolatzailea Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana da.

Afrikako emakumeak gogoan zeramika lanetan

ALEGIA » Alegiko jubilatuen tabernan abenduan zehar Ana Jesus Ansoaren zeramika lanak daude, asteartetik igandera bitarte. Kasu honetan, Afrikako emakumei egin nahi izan die omenaldia eta gai hau jorratzen du gehienbat.

Gipuzkoako Txapelketako finaleratik hurbil

Pilota » Gaur Beotibarren seniorren arteko finalerdiak jokatu dituzte; partida arruntak ere izango dira, eta Amasan, Gabonetakoa.

NEREA URBIZU

Gipuzkoako Txapelketan hasi dira finaleratik hurbiltzen: hauetako finalerdi batzuk jokatu dituzte gaur Beotibarren. Bertan, eskualdeko senior lehen mailako hainbat jokalaririk ariko dira: Aurrera-Saiaz pilota eskolakoak eta Zazpi-Iturrikoak.

Gaurko finalerdiak 20:30ean

hasiko dira eta lehenengo bi partidak dira finalerdiak: lehenengo Zazpi-Iturriko bikoteen artekoak izango dira (Elurbe-Garmendia eta Zelaia-Legarreta) eta bigarren partida, berriz, Aurrera-Saiaz (Renobales-Galarraga) Ozkarbiren kontra. Hirugarren partidaren ere seniorrak ariko dira baina ez da finalerdiakoa izango.

Aurrera-Saiazko Ioseba Senperena seniorrak finala jokatu du Hernanin etzi, 11:00etan. Zazpi-Iturriko Sukia gazteak bihar 11:00etan finala jokatu du, Hernanin ere.

Bihar Gipuzkoako Txapelketako final-laurden batzuk Amasan

izango dira: Behar-Zana ariko da 17:15etik aurrera kadeteen mailan, eta ondoren senior mailako final-laurdenak ikusteko aukera izango da (Lizaso-Altuna Errenteriarren aurka).

Bihar, Amezketan 21:00etatik aurrera Gipuzkoako Txapelketako hiru partidak jokatu dituzte, pilotalekuan. Aldi berean, Bidanin 18:00etan ere izango dira norgegiagokak. Senior mailakoa eta jubilenen mailakoak ariko dira.

Adunan Ilunpe Gazteleku, Hernanin eta erniope ariko dira kadeteen mailan, txapelketa berdinean. Finala izango da. Bihar, 17:00etan hasiko dira.

Alegian Intxurre, Arrasateko eta Behar Zana ariko dira bihar 16:30ean eta infantilen mailan ariko dira.

Bidegoianen 15:30ean bihar infantilen arteko binakako partidak ere izango dira. Beraz, bada pilota non ikusi, Tolosaldeko hainbat herri.

Lortutako txapelak eta finalak

Joan den igandean Ugaitz Renobales txapelak izan zen Juanito Alvarez txapelketan, erakustaldia eginez.

Bestalde, Zazpi-Iturrikoak Burlatako Txapelketan aritu dira eta finalera iristea lortu dute. Etzi

jokatuko dituzte Burlatan hiru bikotek hiru final: infantilena, kadeteena eta jubilenena.

Behar-Zanako Gabon Txapelketako finalak bihar

Amasako pilotalekuan bihar 10:00etatik aurrera Behar Zanak antolatutako Gabon Txapelketako txapelkunak emango dira ezagutzera. Prebenjaminak, benjaminak, alebin eta infantilen finalak jokatu dituzte.

15:30ean Gipuzkoako eskolarraren txapelketako partidak izango dira, alebinen eta benjaminen mailan. Tarteen Jesusen Bihotza eta Samaniego ariko dira.

digitala
h
@

Datorren ostegunean, hilaren 20an, 18:30ean

JOKIN BILDARRATZ

Tolosako alkatearekin elkarrizketa digitala. HITZAren erredakzioan izango dugu zuen galderak erantzuteko.

Bidali aurrez zuen galderak

www.tolosaldeko-hitza.info webgunean.

Egunean bertan ere zuzenean galderak bidali ahalko dituzue.

www.tolosaldeko-hitza.info



Taldeko partaide



» Zilarrezko jaurtiketa

Jon Altuna

Lau aste luzez geldirik egon ondoren, azken aste honetan izter txokoak nabarmen egin zuen hobera eta taldekideekin bidaia-tzeko aukera izan nuen partidua jokatu asmoz. Lesioa dela eta, momentu eta bizipen asko galdu ditut taldekideekin eta honek modu batera edo bestera taldetik at sentiarazten zaitu. Honela, berriro jokatze moduan egoteak ahaztutako sentsazioak oroitarazi eta taldeko partaide naizela gogorarazi dit berriro ere.

Aspaldiko partez, igandetako arropa jarri eta egin beharrekoak egiteko plaza Las palmas-en egokitu zen oraingoan. Berriro ere hegazkinera igo eta Kanariar irletara bidaia, irlako paraje batzuk ezagutzeko aukera izan genuen eta gus-tatu zitzaigun. Urte sasoi honetarako temperatura eta giro bikaina, baina gu hara joatea nahikoa izan zen euria egin zezan.

Partiduaren inguruan zer esan daiteke, husna berdintzeko partidua ateraz zen, baina luzapenean jaso genuen gol batek taldea lur jota utzi zuen. Puntu bat lortzea garrantzitsua zen guretzat, izan ere, honela Las Palmas taldea sailkapeneko zuloan uzten genuelako.

Gu, berriz, sailkapeneko erdialdean gaude; aste honetan Elx-en aurkako partida irabaziz gero sailkapenean nabarmen gora egiteko aukera izango dugu, baina, galduz gero, ordea, jeitsiera postuak ate joka izango ditugu eta orduan geroak! Ea zorrea lagun dugun eta garaipena Ipuruan geratzen den, Gabonak ere laster dira eta oporrak ondo eta lasai ospatzeko garrantzitsua litzateke garaipena lortzea.

NEREA
Lentzeria

Bodiak
Pijamak
Kamisoiak
Kamisetak
Batoiak
Pikardiak
Tangak

Errementari Kalea, z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30



Berrikuntzei buruz sentsibilizatzen

TOLOSA • Herenegun ETE —enpresa txiki eta ertainei— zuzendutako berrikuntzaren inguruko sentsibilizazio jardunaldia izan zen Tolosako Paper Eskolan Tolosaldea Garatzen, garapen agentziak antolatuta. Eskualdeko 15 enpresa desberdinetako ordezkari

hartu zuten parte. Helburua, berrikuntza ekimenak aurrera ematea ETEen esku ere badagoela agertzea izan zen. Euskadi-Innovako aholkulariak gai honen inguruko sentsibilizazioa lantzeaz gain, diru laguntzen inguruko lerro nagusiak agertu zituen. HITZA

OSKI
GAZTEA

Emeterio Arrese, 5 • TOLOSA
943 65 56 21

M^a Victoria Ortiz

G PUNTUA

banoa,
banoa...
banoalasa!!

ILLUNBEN

hitza

30
ekar
URTEURRENA

30 urte
proposatzen
bilatzen
aurkitzen

30 urte
jolasten
harritzen
hunkitzen

30 urte
ikasten
ezagutzen
hazten

30 urte kultura bizitzen, gozatzen

kultura oparoa
zorion aroa



Maixabel Arrieta, Xabier Mendiguren eta Maialen Abaigar. I. GARCIA

Kontseiluak eta Udalak hitzarmena berretsi dute

Villabona » Maixabel Arrieta alkateak eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak sinatu dute lankidetzaz hitzarmena

I. GARCIA

Villabonako Udalak Bai Euskarari Akordioa berretsi du Kontseiluarrekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren bidez. Maixabel Arrieta alkateak eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak sinatu dute lankidetzaz hitzarmena. Ekitaldian izan da ere Maialen Abaigar, Euskara eta Hezkuntza zinegotzia.

Hitzarmen honekin Villabonako Udalak euskararen normalizazioa sustatzeko egindako ahaleginei bultzada eman nahi izan die. 2004 urteaz geroztik, Kontseilua Udalarekin eta euskalgintzarekin batera, Bai Euskarari Akordioa eta konpromiso prozesua garatzen ari da Villabonan.

Maialen Abaigarrek azaldu duenez, «Udalaren eginkizuna da euskaraz bizitzeko aukera izateko neurriak hartu eta bultzatzea. He-

riak euskaraz funtzionatzeko behar dituen baliabideak izateko Udala «ahalegin handia» egiten ari delazehaztu du. Bide horretan «gizarte eragileen inplikazioa behar-beharrezkotzat jotzen dugu». Hain justu, iazko urtean herriko lau eragile berrik eskuratu zuten Ziurtagiria.

Eredugarria

Xabier Mendigurenek azaldu duenez, «eredugarria da Villabonan guztiok batera proiektu berri hau martxan nola jarri duzuen».

Ildo honetatik, «Villabonakoa da eredu baliagarria non euskalgintza, instituzioak eta gizartearen euskararen normalizazioaren alde elkarlanean ari diren», gaineratu du Xabier Mendigurenek. Izan ere, «elkarlanaren bidea» da Kontseiluak jarraitu nahi duena eta hitzarmenaren ere, «elkarrekin aritzeko proposamena» egin die instituzioei.

Horretaz gainera, «azpimarratzekoa da Bai Euskarari Akordioa gerturatzeko asmoz Aiztondoko euskalgintza egiten ari den lana», esan du zorionak emanez Mendigurenek.

Laburrak

Juan Vallejoen ikusentzuekiko, gaur

ASTEASO » Mendi Astearen baitan, gaur, 20:00etan, udal txekoko zinema aretoan Juan Vallejo *Tibet, Everest, Sisha eskaladak* ikusentzuekiko emango du. Bihar goizean, orientazio lasterketa egingo dute. 09:30ean zabalduko dute izen-ematea.

Ikus-entzuekiko eta kirolariei omenaldia

ZIZURKIL » Kirol Asteburuaren baitan, gaur bi ekitaldi izango dira. Alde batetik, *Alpi-Mambo-Torre Sin Nombre* ikus-entzuekiko emango dute Atxulondo kultur etxean, 19:30ean. Ondoren, Zizurkilgo Udalak herriko kirolariei omenaldia egingo die.

Elkarrizketa

JABIER MUGURUZA » musikaria

«Bizitza eta lanaren arteko koherentzia dut helburu»

Villabona » Aurreko diskoarekin hasitako bideari jarraitzen dio Jabier Muguruzak 'Konplizeak'ekin; gaur defendatuko du obra hori zuzenean Gurea aretoan

IMANOL GARCIA

Jabier Muguruzak (Irun, 1960) *Konplizeak* diskoa zuzenean aurkeztuko du gaur Gurea aretoan. 22:30ean hasiko da kontzertua.

Zer eskaintzen duzu 'Konplizeak' diskoarekin?

Aurrekoarekin hasitako bideari jarraitzen ematen diot, instrumentazioaren aldetik. Musika aldetik, beraz, Angel Unzu eta Mireia Otzerin jauregiarekin jarraitzen dut. Testuaren aldetik, bi bide nagusi daude. Alde batetik, ohizko kolaboratzaileak, eta gero berribatuz ere bai, liburuetatik jasotakoak: Leire Bilbao, Angel Erro... Nire testu bat ere badago, aitari idatzitakoa.

Testuez gain, musika mailan ere kolaborazioak izan dituzu. Aipatuena Martirioren auzua izan da.

Martirioren dagokionez, gauza bat argitu nahiko nuke. Komunikabide askotan azaldu da 80. hamarkadako koplalari bezala. Niri gehiago gustatzen zait azpimarratzea azken hamarkada honetan egiten ari den lana. Disko zoragarriak argitaratzen ari da eta nikuste jende asko gelditu dela aspaldiko koplalariaren irudiariekin. Martirioren kasuan, bere semea Raul Rodriguez gitarra-jotzailea ezagutzen nuen eta hortik sortu zen diskoan parte hartzeko aukera. Fado giroko kantabatz zegoen diskoan. Hori proposatu eta gustatu zitzaion.

Eta nolako izan da esperientzia?

Oso gustura emaitzarekin. Baina ez hori bakarrik, oso gustura gelditu naiz aukera izan dudalako berarekin egoteko eta luze hitz egiteko. Ikusi dut ez dela interprete ona bakarrik, oso pertsona indartsua dagoela hor atzean. Bidean dagoen artista bat sentitzen da eta nik ikuspegi horrekin bat egiten dut. Ez da izar bat sentitzen. Bere lagun batzuk aipatzen ditu, Cesaria Evora esaterako, eta esaten du bera ez delairitsi oraindik, bidean dagoela. Eta niri iruditzen zitzaidan oso aberasgarria berarekin egun horiek partekatzea.

Kolaboratzaileek musikaz gain beste gauza batzuk ere ematen dizkizute, beraz.

Hori gertatzen da egile handiekin. Martirioren dela, Kiko Veneno dela edo Jackson Brownen dela. Jende horrekin asko ikasten da. Ez dira



HITZA

harroputzak eta gure gremio honetan nola hain ego ikaragarriak dauden, horrelako jendearekin egotea zoragarria da.

Diskoan abesti bat gaztelerez dago.

Diskoak euskaraz ateratzen ditut. Nire eguneroko bizitzan bezala lehentasuna ematen diot euskarari beti, baina ez nago besteen aurka. Ni saiatzen naiz nire obrak eta nire bizitzak ahalik eta antza handiena izan dezaten. Gaztelera nire ama hizkuntza da eta lasai asko erabiltzen dut eta ez daukat ezer kontra. Beste disko batzuetan ere erabili izan dut, frantsesa ere sartu izan dut, Euskal Herriko beste hizkuntza bat, hain zuzen, eta erabili izan dut katalana, Katalunian lan asko egiten dudalako. Niri orokorrean hizkuntzak asko gustatzen zaizkit. Euskaraz egiten dut, horretan nabilelako aspalditik.

Elkar disketearekin atera duzu berriz diskoa.

Orain lau urte egin nuen apustu bat: Estatu mailan lortzen ari nintzena, zergatik ez saiatu hortik kanpo ere? Horretarako behar nuen nazioarteko banaketa eta horretarako Resistenciaren atea jo nuen eta *Enegarren postala* eta *Abenduak 29* diskoak argitaratu zitkidaten. Horren ondoren, nire azterketa izan da oso zaila dela kantautore gisa euskaraz lortzea Italian edo Frantzia merkatu bat. Agian beste bat saiatzen da eta lortzen du. Beraz, erabaki nuen indarrak hemen jartzea. Azken batean, euskaraz egiten dut gehiena.

Esan daiteke sonortate jakin bat duzula.

Lanaren eta bizimoduaren arteko koherentzia lortuko banu, niretzat helburu lortuta egongo litzateke. Askotan esaten duten nire musikaren efektu balsamiko hori lortzen

bada, ni pozik. Bizimodu arruntetan ere hortan saiatzen naiz. Iruditzen zait hemen ahalik eta azkarraren egin behar dugula dena eta nire apustua ez da hori. Hala ere, iruditzen zait nire diskografian eta lanean bestelako apustuak ere badaudela, ez bakarrik abiadurarena.

Zeintzuk dira?

Nik uste dut hitzetan. Bederatzi disko dira dagoeneko, eta horiek hartu eta denak batera jarri eta ikuspegi bat osatzen dutela. Ez bakarrik hizkuntza, ez bakarrik abidura, poesia ere hitz egin beharko genuke. Nire erregistro horretaz ere. Gero tonu bat izaten da. Nik gauzak esan esaten ditut, baina ez ditut modu enfatikoko batean esaten, iradoki, proposatu... egiten ditut. Nik uste dut hor beste ikuspegi bat planteatzen dela, nagusia den horretatik nahiko urrun dagoena.

Radio Euskadi irradian egiten duzun kolaborazioan ere ikuspegi hori islatzen saiatzen zara?

Nik uste dut, edukiaz aparte, jendeak eskertzen duela tonu bat. Niri Mallorcatik orain bi urte posta elektronikoko bat bidali zidan gizon batek, esanez *Enegarren postala* diskoak bere emaztea galdu izana gainditzen lagundu ziola. Nik uste testua baino, giro bat, tonu bat dagoela, eta horrek ere lagundu edo egiten digula. Behar hori dugu, bestela hemen oso modu arraroan bizitza.

Nola ikusten dituzu zuzenekoak?

Niretzat garrantzitsua da disko batean gauzatzen dena gero zuzenean ematea. Diskoa argitaratu arte etapa bat dagoela, eta ondoren bigarren etapa bat, elkarritzen bidez eta kontzertuen bidez obra horren defentsa egitea jendearen aurrean. Beraz, gogo handiarekin joaten naiz plazetara.

ELOLA
ALTZARIAK

bede

• Etxeko altzariak.
• Ordenagailuz egindako proiektuak.
• Armairu enpotaatuak neurria.

Tel.: 943 65 29 01
Lizardi poeta, 2
TOLOSA

lo egiteko eta atsedean hartzeko onena

E Elkarrizketa

IRATI BARANDIARAN ▶ Ikaslea

«Denbora beste modu batera bizi dute han, lasaiago»

Leitza » Abendu hasieran Leitzako 5 neska-mutil Saharan izan ziren, udan etxean jasotako bertako umeak eta hauen familiak bisitatzeko asmoz.

NAIARA GARZIA

Lorea Arantzeta, Maia Arantzeta, Jon Arantzeta, Aratz Barandiaran eta Irati Barandian Saharako Tinduf kanpamenduetan izan dira abendu hasieran. Astebete eman dute bertan, eta Irati Barandiarenek (Leitza, 1988) han ikusitakoa azaldu du.

Leitzako 5 neska-mutil joan zarete Saharara. Abenduan joateko erabakia hartu al zenuten?

Bai, urtean Tindufera joateko bi aukera izaten dira, bat abenduan eta bestea Aste Santuetan. Guk abenduan joatea erabaki genuen.

Nolakoa izan zen bidaiak?

Nafarroatik jende gehiegi joatekoak ez ginenez, Espainiako beste leku batzuetako jendearekin joan gara. Bidaia hagitz luzea izan zen, aurrena Madrilera autobusez joan ginen eta gero abioia hartu genuen. Hegazkinera sartu eta pisu gehiegi geneukala esan ziguten hasiera batean, baina azkenean ez zen arazorik izan. Tindufera hurrengo eguneko 06:00 aldera iritsi ginen.

Helduera nola duzu gogoan?

Egia esanda iritsi ginenean gau ez iritsi ginen, baina hurrengo egunean jaiki ginenean hura ikusteko aukera izan genuen lehenengo aldiz.

Pentsatzen zenuena bezalakoa al zen?

Atentzioa eman zidan, entxufe bat ikusteak, argazki kamararen bateria kargatzeko aukera ez genuela izanzen pentsatzen genuen, baina entxufe bat ikusi genuen. Gero dendak badaude, eta horrek ere

atentzioa eman zidan. Bertan janaria saltzen dute orokorrean.

Bertakoentzat zerbait eraman al zenuten?

Bai, eguzki-plaka bat eraman genuen, eta honek dezente pisatzen zuenez, gero ez genuen hainbeste gauza eramateko aukerarik izan. Beste zenbait gauzen artean, Leitzan bizi den saharar batek emandako medikamentuak eramangozkie.

Han egon zareten egunetan zehar, zer egin duzue?

Denbora beste modu batetara bizi dute han, lasaiago. Tea ikaragarri edan dugu, egunean 10 tetik gora, gainera txanda bakoitzean 3 te edaten dituzte: lehenengoa amodioa bezain gozoa, bigarrena bizitza bezain garratza eta hirugarrena, heriotza bezain suabea. Tea hartzeak esanahi bat baitu haien zatit.

Lasaiago bizi dira beraz han?

Hori niretzako harrigarria izan da, denbora beste modu batetara bizi

Janari aldetik eskasia daukate orain eta Leitzan datorren astean janari bilketa eginen dugu

dute, han ez dute apenas egiteko ezer, ez dute lanik egiten, batzuk beharbada dendaren batean, baina beste modu batetara bizi dira. Han orain esaten dutenean, hemendik 5 minututara izan daiteke edo hortik 4 ordutara.



HITZA

Non egin duzue lo?

Haiek lurrean egiten dute lo, alfombra baten gainean eta guri koltxonetan batean lo gitea eskaini zigten, baina guk ere lurrean egin dugu lo.

Hemendik hara jendea joatea eskertzen al dute?

Bai, gainera haien semea udan zeinek egoten den ikustea ere gustatzen zaie. Gure familiakoek erdararik ez zuten egiten, eta orduan bizilagunekin eta moldatu gara.

Tea hartzeaz gain, zer jan duzue?

Makarroiak eta horrelakoak ere

jan ditugu, azken batean guk dirua eman genien eta egun horietan normalean jaten dutena baino gehiago jan dute haiek ere, gu han geundelako. Egun batean desertu aldera joan eta ahuntz bat hil zuten han bertan, azala kendu, erre, eta hantxe jan genuen denon artean.

Orain zer egoeratan daude?

Janari aldetik eskasia daukate orain, eta Leitzan datorren astean janari-bilketa eginen dugu. Oraindik janaria non jasoko dugun zehaztu gabe dago, baina datorren astean kartelak jarriko ditugu.

'Eskerrak Zuri Aipamen Bereziak 2007', gaur, udaletxeko bilkura aretoan

Gizartea » Antolatzaileek diotenez, «aipamen honen xedea eskualdeko herritarrei bultzadaxoa ematea da».

ERREDAKZIOA

Gaur, 20:00etan, Tolosako udaletxeko bilkura aretoan *Eskerrak Zuri Aipamen Bereziak* ekitaldia egingo dute. Aipamenak ondorengo 4 arloetan egingo dira: kirola, kultura, gizatasuna eta ohorezko aipamena. 4 oroiarri banatuko dituzte.

Ekitaldiaren arduradunek azaldu dutenez, «auzo, herri nahiz eskualde mailan lan handia egiten ari den jendea badago, eta egiten dutena publikoki baloratzea da gure xedea».

Herritarrek hobe, izarrek baino

Ekitaldi honen bitartez Galtzaundi Euskara Taldeak eskualdean hainbat lagunek urte osoan zehar egindako lanaren aipamen berezia egin nahi du. Sariketa baino errekonozimendu bat izango litzateke, beraz.

Omenduak pertsonak edo taldeak izan daitezke. Aipamen honen xedea eskualdeko herritarrei bultzadaxoa ematea da. «Horregatik uste dugu epaimahaia lehenetasuna eman beharko liokeela apal-apallan eta lan ari den pertsonari edo taldeari. Kirolarien kasua adibidez hartuta, Realeko jokariak izan daitezke sarituak baina ziur eskualdean badaudela sakrifizio bera eta fama gutxiago duten kirolariak. Azken hauen lana aintzat hartzea da ekitaldi honen helburua».

Urteroko ekitaldia

Galtzaundi Euskara Taldeak urteko proposamen modukoa aurkeztuko die epaimahai ezberdinei, eta hauek izango dute azken hitza. Urte jakin batean egindako lana eskertuko da, baina urtebete baino luzeagoa den jarduna ere omentzeko aukera ikusten da, hau da, pertsona edo talde baten ibilbide oso bat omentzekoa.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



6°
2°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 6°
HOTZENA 0°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaalde@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarraalde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitzaalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Zizurkil.** Alpi-Mambo-Izenik gabeko dorrea ikus-entzunezkoa Atxulondo kultur etxean 19:30ean eta ondoren herriko kirolariei omenaldia.

■ **Tolosa.** Galtzaundi euskara taldeak Eskerrak zuri 2007 ekitaldia antolatuko du udal batzar aretoan 20:00etatik aurrera, Tolosaldean hainbat elkarte eta pertsonak egindako lana publikoki eskertzeko (kirola, kultura, gizatasuna eta ohorezko aipamen berezia).

Ikuskizunak

■ **Asteasu.** Juan Vallejo Tibeten, Eversten eta Shishan egindako eskaladak ikus-entzunezko baten bidez aurkeztuko ditu udaletxeko zinema aretoan 20:00etan, XIII. Mendi Astearen barruan

Hitzaldiak

■ **Zizurkil.** *Itsasarte bat eta bizikidetasunera kondenaturiko bi ertz* hitzaldia Abdelaziz Allaouzi Kulturarteko Bitartekariarekin Ereite elkartearen egoitzan 18:30. Ondoren, eztabaida. 20:00etan sabel dantza tailerra.

Musika

■ **Tolosa.** Atom Rhumba eta Lisboa taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.
■ **Villabona.** Jabier Muguruza musikariaren kontzertua izango da entzungai Gurea antzokian 22:30ean.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketak Aranburu Jauregian. Inaugurazioa, abenduaren 14ean 19:30ean. 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.

■ **Alegia.** Alegiko jubilatuaren tabernan Ana Jesus Ansorena tolosarraren zeramikazko lanak daude, eta Afrikako emakumei egin dien omenaldiarekin daude lotuta. Hilabete osoz egongo dira. Asteartetik igandera bitarte egongo dira ikusgai.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.
■ **Ibarra.** Iturriz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Villabonako Jesusen Bihotza parrokiaren kontzertua eskainiko du Alize Mendizabal organo jotzaileak; sei abestiz osaturiko egitaraua eskainiko du musikariak.

Organu doinuekin gozatzeko

ERREDAKZIOA

Musikak tartea izango du asteburu honetan Villabonan. Hain zuzen, Alize Mendizabal organo jotzaileak kontzertua eskainiko du bihar goizean, Jesusen Bihotza parrokiaren, 19:45etik aurrera.

Sei abestiz osaturiko egitaraua eskainiko du musikari donostiarrak. Eskarmentu handia du musika munduan. Donostian bertan ekin zien pianoko eta klavicembaloko ikasketei, erdi eta goi mailako tituluak lortu zituelarik. Aldi berean, Baioan Bernadette Carreau eta Esteban Landart musikariaren eskutik organo ikasketak egin zituen, 2003an amaitu zituenak.

Belarriak gozatzeko aukera paregabea izango dute, beraz, berartzen direnek.



Alize Mendizabal organo jotzaileak eskarmentu handia du musika munduan. HITZA



Villabonako Jesusen Bihotza parrokiako organoa. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Joxepa! Urteak 81 badira halere beti hor zure begi dizdira gure muxu guztiak zuretzako gutxi dira.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Jabier Muguruza Konplizeak



ABENDUAK 14
OSTIRALA
22:30ean
VILLABONAKO
GUREA ANTZOKIAN

